

Alba Emission Free Energyk eta Donostia Zinemaldiak bi urterako akordioa sinatu dute Green Challenge delakoa bultzatzeko

- **Ekimen aitzindari honen bitartez, bi erakundeek trantsizio energetikoa bultzatzeko konpromisoa hartu dute**
- **Bi erakundeek beste pauso bat eman dute Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko, zehazkiago esanda, 13. Helburua: ‘Klima babesteko ekintza’**
- **Sinatzeko ekitaldia Victoria Eugenia Antzokian egin da gaur, eta bertan izan dira Emiliano López Atxurra Alba Emission Free Energyko presidentea eta José Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendaria**
- **Alba Emission Free Energy trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa bultzatzea xede duen Petronorren filiala da**

Donostian, 2021eko irailaren 14an. Emiliano López Atxurra Alba Emission Free Energyko presidentea, eta José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendariak bi erakundeen arteko lankidetzakordio bat sinatu dute gaur Green Challenge delakoa bultzatzeko.

Donostia Zinemaldiaren 69. edizioak bere gain hartu du Green Challenge proiektuari heltzeko konpromisoa eta Alba Emission Free Energyk horretan parte hartuko du, bi erakundeek klima-aldaketa arintzen lagun dezaketen neurriak bultzatzeko hartu duten konpromisoaren harira.

Bestalde, Alba Emission Free Energyk, trantsizio energetikoaren eta deskarbonizazioaren jarduera guztiak –hidrogenotik tokiko energia-komunitateetara ino– biltzen dituen Petronorren filialak Zinemaldiaren aldeko babesa azaldu du hitzarmen honen bitartez. Donostia Zinemaldia da enplegua sortu, teknologia garatu eta pertsonengan pentsatu nahiz ondo pasaraztea xede duen industriaren erakusle horik onena, eta horretan energia-eraginkortasunak eta jasangarritasunak ere leku propioa dute.



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

VK Comunicación

Informazio gehiago:

Patricia Loredó Sierra

944 01 53 06 / 629 74 90 47

patricia@vkcomunicacion.com